



LAKIDETZA-HITZARMENAREN LUZAPENA

BILDU DIRA

Bilbon, 2022ko martxoaren 3an, alde batetik, Kepa Odriozola Azula jauna, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren (aurrerantzean, BBUP) izenean eta ordezkari (IFK: P-4800005C), 2022ko martxoaren 1ean egindako Zuzendaritza Batzordearen Erabakiaren arabera egintza honetan esku-hartzeko gaitasuna daukana.

Eta, bestetik, Antonio González Prada jauna, CEIT Zentro Teknologikoa Elkartearen (aurrerantzean, CEIT) izenean eta ordezkari (IFK: G20079695), gerentea den aldetik egintza honetan esku hartzeko behar adina gaitasun izanik.

Bi alderdiek, bakoitzak daukan ordezkari kontuan hartuta, hitzarmen hau sinatzeko legezko gaitasun nahikoa aintzatetsi diote elkarri. Horretarako hauxe

ADIERAZI DUTE

LEHENENGOA.- Ikerkuntzaren eta horri esker lortutako emaitzen aplikazioaren sustapena lehenetsuzko helburu bat da industria-ehunaren sektore guztien garapen teknologikoa lortzeko.

BIGARRENA.- Muskizko HUA handitzeko proiektua idazteko, obra egikaritzeko eta ustiatzeko kontratua gauzatzen ari da BBUP.

2019ko martxoaren 28an, lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zen bi alderdien artean "Simulazio dinamik bidez Muskizko HUA handitzeko kontratua garatzeko eta lizitatzeko laguntza teknologikoa emateko".

Laguntza teknologikoa honako fase hauetan banatu da:

- 1. FASEA – ESKABIDEEN HAUTAKETA: Plegua prestatzea, eskaintzak aztertzea eta 2. FASERA igaroko diren eskaintzen lehen hautaketa egitea.

PRORROGA DE ACUERDO DE COLABORACIÓN

REUNIDOS

En Bilbao, a 3 de marzo de 2022, de una parte, D. Kepa Odriozola Azula, actuando en nombre y representación de Consorcio de Aguas de Bilbao Bizkaia (en adelante CABB), con CIF P-4800005C facultado para este acto por acuerdo del Comité Directivo de fecha 1 de marzo de 2022.

Y, de otra parte, D. Antonio González Prada, actuando en nombre y representación de la Asociación Centro Tecnológico CEIT (en adelante CEIT), con CIF G20079695, y con poder suficiente para la celebración de este acto en virtud de su cargo de Gerente.

Ambos intervienen en la representación que ostentan, se reconocen mutuamente capacidad legal suficiente para suscribir el presente Acuerdo y, a tal efecto,

EXPONEN

PRIMERO.- Que el impulso de la investigación y la aplicación de los resultados obtenidos en la misma, se presenta como un objetivo prioritario en orden al desarrollo tecnológico de todos los sectores del tejido industrial.

SEGUNDO.- Que el CABB está llevando a cabo el Contrato de redacción de proyecto, ejecución de obra y explotación de la ampliación de la EDAR de Muskiz.

Que con fecha 28 de Marzo de 2018 se firmó un Acuerdo de Colaboración entre ambas partes para contemplar la "Asistencia Tecnológica en la licitación y desarrollo del contrato de ampliación de la EDAR de Muskiz mediante simulación dinámica".

La asistencia tecnológica comprende las siguientes fases:

- FASE 1 – SELECCIÓN DE SOLICITUDES: Preparación del pliego, análisis de ofertas y preselección de las que pasarán a la FASE 2.



- 2. FASEA – LEHIA-ELKARRIZKETA: Aurrehautatutako eskaintzen proiektuak garatzea eta 3. FASERA igaroko den eskaintza aukeratzea.
- 3. FASEA – ERAIKUNTZA-PROIEKTUA: Hautatutako aukeraren eraikuntza-proiektua idaztea.
- 4. FASEA – OBRA ETA ZERBITZUAN JARTZEA: Obra egikaritzea eta instalazio berria martxan hartzea. Instalazio berria ustiatzen den bitartean 5. FASE bat egiteko aukera aurreikusten da, hitzarmenaren luzapen baten bidez formalizatuko dena.

HIRUGARRENA.- CEIT zentroak, beste ikerketa-zentro teknologiko eta unibertsitate batzuekin batera, simulazio dinamikoko eredu bat garatu du, hondakin urak arazteko prozesu biologiko desberdinak ebaluatzeko balio duena. Eredu hori aproposa da BBUPk laster lizitatuko duen prozedura irekiaren baitan arazketan espezializatutako ingeniarietzek egingo dituzten proposamenak ebaluatzeko.

Lan hori beste erakunde batek egin dezakeen arren, CEIT zentroak egitea jasangarriagoa dela uste da, hurbiltasunagatik.

Bestalde, lehia-elkarrizketaren kontratazio-mahaiaren parte izan zirenez, konfidentzialtasun arazoak eta zentroaren izaera independentea direla eta, eginkizun horiek egiteko erakunde egokia izango zela pentsatu zen.

LAUGARRENA.- Jatorrizko lankidetzaz hitzarmena 2018ko martxoaren 28an sinatu zen, eta hasiera batean 48 hilabeteko iraupena izango zuela aurreikusi zen; hala ere, hitzarmenaren laugarren klausulan jasotakoaren arabera, hitzarmenaren iraupena lotuta dago Muskizko HUA handitzeko proiektua idazteko, obra egikaritzeko eta ustiatzeko kontratuaren iraupenari.

Kontratu horren iraupena luzatu egin da, eta horrek zuzeneko eragina du lankidetzaz hitzarmenaren iraupenean, behar bezala garatu eta burutu dadin.

Lankidetzaz hitzarmenaren luzapen hau sinatu den egunean, dagoeneko egin dira bigarren xedapenean

- FASE 2 – DIALOGO COMPETITIVO: Desarrollo de los proyectos de las ofertas preseleccionadas y elección final de uno de ellos para la FASE 3.

- FASE 3 – PROYECTO DE CONSTRUCCIÓN: Redacción del proyecto de construcción de la opción seleccionada.

- FASE 4 – OBRA Y PUESTA EN SERVICIO: Ejecución de la obra y puesta en servicio de la nueva planta. Se contempla una posible FASE 5 durante la Explotación de la nueva planta, que se formalizará mediante una eventual prórroga del convenio.

TERCERO. - Que el CEIT ha desarrollado, junto con otros centros tecnológicos de investigación y universidades, un modelo de simulación dinámica que permite evaluar distintos procesos biológicos de depuración de aguas residuales. Dicho modelo se considera ideal para poder evaluar las propuestas que las distintas ingenierías especializadas en depuración podrán proponer en un procedimiento abierto que próximamente licite el CABB.

Si bien el trabajo podría ser encargado a alguno de los otros entes, se considera más sostenible el que lo haga CEIT por proximidad.

Por otro lado, dado que además formó parte de la mesa de contratación del diálogo competitivo, por razones de confidencialidad, y su carácter independiente se consideró una entidad adecuada para desarrollar esas funciones.

CUARTO. - Que el Acuerdo de Colaboración originario fue firmado el 28 de marzo de 2018 y tenía una duración prevista inicial de 48 meses, si bien, como recoge la cláusula cuarta del mismo, la duración del mismo está ligada a la duración del Contrato de redacción de proyecto, ejecución de obra y explotación de la ampliación de la EDAR de Muskiz.

Que el plazo de dicho contrato ha sido ampliado de tal modo que afecta directamente al plazo del Acuerdo de Colaboración para su correcto desarrollo y consecución.

Que a fecha de firma de la presente Prórroga de Acuerdo de Colaboración ya han sido realizadas las



deskribatutako 1., 2. eta 3. faseak, eta oraindik egiteke daude 4. fasea eta, beharbada, 5. fasea.

BBUPk CEIT zentroarekin duen lankidetzaz luza nahi du, saneamenduko zerbitzu publikoak eraginkortasun handienarekin ematen direla bermatzeko. CEIT irabazi-asmorik gabeko elkarte pribatu bat da, eta onura publikoko erabilera aitortu zaio.

Arestian aipatutako guztia dela eta, alderdiak akordio batera heldu dira eta berau arautze aldera honako klausula hauek itundu dituzte:

KLAUSULAK

LEHENA. - HITZARMENAREN LUZAPENAREN XEDEA.
Hitzarmen honen luzapenaren xedea, alde batetik, BBUPren eta, bestetik, CEITen arteko lankidetzaren baldintzak ezartzea da, "Simulazio dinamiko bidez Muskizko HUA handitzeko kontratua garatu eta lizitatzeko laguntza teknologikoa" izeneko proiektua gauzatzen jarraitzeko.

BIGARRENA. - LANEN IRISMEN TEKNIKOA.
Proiektuaren bost faseen xede diren jarduerak CEITek egin duen Txosten Teknikoan zehaztu dira. Txostena hitzarmen honi erantsi zaio "A Eranskin" gisa. Erakunde horrek txostenean jasotako jarduerak burutzeko konpromisoa hartu du, bertan zehaztu diren baldintzak eta irismena errespetatuz.

Lankidetzaz-hitzarmenaren luzapen honen babespean garatuko diren faseak honako hauek izango dira soilik:

- 4. FASEA - OBRA ETA ZERBITZUAN JARTZEA: Obra egikaritzea eta instalazio berria martxan hartzea.

Instalazio berria ustiatzen den bitartean 5. FASE bat egiteko aukera aurreikusten da, hitzarmenaren beste luzapen baten bidez formalizatuko dena.

Bestalde, BBUPk aipatutako txostenean jasotako eginkizunak bere gain hartuko ditu eta eskura duen dokumentazio teknikoa emateko betebeharra izango du, hartara, proiektuaren xedea hobeto bete ahal izateko.

Fases 1, 2 y 3 descritas en la exposición segunda y que resta por ejecutar la Fase 4 y una posible Fase 5.

Que el CABB quiere prorrogar la colaboración con CEIT para garantizar que los servicios públicos de saneamiento se prestan con la máxima eficiencia. CEIT es una Asociación privada sin ánimo de lucro declarada de Utilidad Pública.

Por todo lo anterior, las partes han llegado a un Acuerdo al respecto y al objeto de regularlo pactan las siguientes,

CLÁUSULAS

PRIMERA. - OBJETO DE LA PRÓRROGA DE ACUERDO.
El objeto de la presente Prórroga de Acuerdo es establecer las condiciones de una colaboración entre CABB, por un lado, y CEIT por otro, para continuar con la realización del Proyecto de título "Asistencia Tecnológica en la licitación y desarrollo del contrato de ampliación de la EDAR de Muskiz mediante simulación dinámica".

SEGUNDA. - ALCANCE TÉCNICO DE LOS TRABAJOS. Las actividades objeto de este Proyecto en sus cinco fases, están descritas con detalle en la correspondiente Memoria Técnica elaborada por CEIT, que se acompaña como "Anexo A" a este Acuerdo, comprometiéndose esta Entidad a llevarlas a efecto, en los términos y alcance en ella determinados.

Las fases que se desarrollaran bajo el amparo de esta Prórroga del Acuerdo de Colaboración corresponden únicamente a las siguientes:

- FASE 4 - OBRA Y PUESTA EN SERVICIO: Ejecución de la obra y puesta en servicio de la nueva planta.

Se contempla una posible FASE 5 durante la Explotación de la nueva planta, que se formalizará mediante una eventual nueva prórroga del convenio.

El CABB, por su parte, asumirá las tareas propias contempladas en la citada Memoria, obligándose a aportar la documentación técnica a su alcance en orden a un mejor cumplimiento de los objetivos del Proyecto.



Egintza honetan esku hartzen duten alderdiek, Jarraipen Batzorde baten bitartez, aldaketa-proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte alderdi hauei dagokienez: hitzarmenaren eremua, izaera eta adostutako zerbitzuak egikaritzeko aaldiak; betiere horiek egikaritzeko ezarri den zenbateko ekonomiko osoa gainditzen ez den artean. Aldaketa horiek indarrean sar daitezzen, nahitaezkoa izango da alderdien arteko akordioa.

HIRUGARRENA. - LANAK EGIKARITZEKO TOKIA. Hitzarmen honen xede diren lanak, funtsean, CEITen egoitzako bulegoetan garatuko dira. Hala eta guztiz ere, erakunde hori BBUPk Bilboko bulegoetan deitzen dituen bileretara joan beharko da. Horrez gain, hitzarmen honen bitartez erdietsi nahi diren helburuak lortzeko beharrezkotzat jotzen diren gainerako instalazioak edota tokiak bisitatu beharko ditu.

Lankidetzaren ondoriozko entregak, partzialak nahiz behin betikoa, BBUPren Bilboko bulegoetan egingo dira.

LAUGARRENA. - LANKIDETZA-HITZARMENAREN LUZAPENAREN IRAUPENA. Proposatutako lankidetzaren hitzarmenaren luzapenak HOGEITA LAU (24) HILABETEKO iraupena izango du hasiera batean, jatorrizko lankidetzaren hitzarmenaren iraupenaren egunetik aurrera zenbatzen hasita, hau da, 2022ko martxoaren 28tik aurrera zenbatzen hasita. Edonola ere, hitzarmenaren behin betiko iraupena Muskizko HUA handitzeko proiektua idazteko, obra egikaritzeko eta ustiatzeko kontratuaren iraupenera lotuta egongo da, baita Ustiapenerako 5. Faseari aurre egiteko beste luzapen bat onesteko aukerari lotuta ere.

BOSGARRENA. - HITZARMENAREN LUZAPENAREN IRISMEN EKONOMIKOA. Lankidetzaren xede diren lanaren irismen ekonomikoa HOGEITA ZAZPI MILA ZAZPIEHUN ETA HOGEI EURO da (27.720 €), BEZik gabe, eta jatorrizko lankidetzaren hitzarmenaren egin ez diren eta ziurtatu ez diren lanak dagokie.

SEIGARRENA. - JABETZA INTELEKTUALA ETA INDUSTRIALA. BBUPren eta CEITen arteko lankidetzaren

Las partes intervinientes, a través de la Comisión de Seguimiento, podrán proponer cambios sobre el ámbito del Acuerdo, su naturaleza, así como los periodos de ejecución de los servicios acordados, siempre y cuando no rebasen el montante económico total fijado para el mismo. Dichos cambios requerirán del acuerdo por escrito entre las Partes para su entrada en vigor.

TERCERA. - LUGAR DE EJECUCIÓN DE LOS TRABAJOS. Los trabajos objeto del presente Acuerdo se desarrollarán básicamente en las dependencias de CEIT en su sede social, si bien, esta Entidad quedará asimismo obligada a asistir a las reuniones de trabajo que convoque el CABB en sus oficinas de Bilbao, así como también a visitar aquellos otros lugares y/o instalaciones adicionales que se consideren necesarias para la consecución de los objetivos perseguidos por el presente Acuerdo.

Las entregas, tanto parciales como la definitiva de los resultados de esta colaboración, tendrá lugar en las oficinas del CABB en Bilbao.

CUARTA. - DURACIÓN DE LA PRÓRROGA DE ACUERDO DE COLABORACIÓN. La prórroga de Acuerdo de colaboración planteado tendrá una duración inicial de VEINTICUATRO (24) MESES, contados a partir de la fecha de vencimiento del Acuerdo de Colaboración originario, es decir, contados desde el 28 de Marzo de 2022. En todo caso, la duración definitiva del mismo estará ligada a la duración del Contrato de redacción de proyecto, ejecución de obra y explotación de la Ampliación de la EDAR de Muskiz, y por la posibilidad de una nueva prórroga para poder atender una eventual Fase 5 de Explotación

QUINTA. - ALCANCE ECONÓMICO DE LA PRÓRROGA DE ACUERDO. El alcance económico de los trabajos objeto de esta colaboración se eleva a la cantidad de VEINTISIETE MIL SETECIENTOS VEINTE EUROS (27.720 €) excluido IVA que corresponde exactamente con los trabajos no efectuados ni certificados en el Acuerdo de Colaboración originario.

SEXTA. - PROPIEDAD INTELECTUAL E INDUSTRIAL. La propiedad intelectual del proyecto objeto de este



hitzarmen honen xede den proiektuaren jabetza intelektuala lehenengoarena izango da, hura baita proiektuan garatuko diren lan guztiak finantzatzeko dituen erakundea. Hala eta guztiz ere, CEITek baimena eskatu ahal izango dio BBUPri proiektu honetan garatutako gaiak, osotasunean zein partzialki, erabiltzeko. Proiektu eta eskaintzen simulagailuak eraikitzeko erabiliko den eredu matematikoen liburutegia CEIT zentroaren jabetzakoa da. Liburutegi hori CEIT zentroak erabiliko du proiektuaren hiru faseetan zehar simulazioak egiteko. Proiektuaren 4. FASEA amaitzen denean, CEIT zentroak liburutegiaren bertsio baten lizentzia emango dio BBUPri, hark erakundearen baitan erabili dezan, Muskizko HUA berriaren operazioen simulagailuaren barneko parte gisa.

Lizentzia hori ez-esklusiboa izango da, ezingo zaio hirugarrenei horren lizentziarik eman eta Muskizko HUA berriari erabiltzeko baino ez da erabiliko. Lizentzia eman baino lehen, BBUPk ordainketa egin beharko dio CEIT zentroari, hamabigarren klausulan xedatutakoaren arabera.

ZAZPIGARRENA. - EMAITZEN PUBLIZITATEA.

Lankidetzaren emaitzak, partzialak zein amaierakoak, alderdietako edozeinek zabaldu ahal izango ditu argitalpen edo hitzaldien bitartez. Dena den, aurreko puntuan ezarritakoari jarraiki, alderdi interesduna CEIT denean, alde aurretik baimena eskatu beharko dio BBUPri, proiektuaren Jarraipen Batzordeko BBUPren ordezkariari mezu elektronikoa bidaliz, hitzarmen honen bederatzigarren klausulan adierazten denari, hain zuzen.

BBUPk gehienez ere 30 eguneko epean erantzun beharko du, mezu elektronikoa jasotzen duenetik zenbatzen hasita. Horren bidez, sinesgarri jakinaraziko du baimen-ematea, erresalvia edo desadostasuna, artikularen edo hitzaldiaren informazioari dagokionez.

Epe horretan erantzunik jaso ezean, informazioa zabaltzeko isilbidezko baimena eman dela ulertuko da.

Acuerdo entre el CABB y CEIT, pertenecerá al primero, en razón a su condición de Entidad financiadora de la totalidad de los trabajos en él desarrollados, si bien, CEIT podrá solicitar autorización al CABB para la utilización total o parcial de las materias desarrolladas en el presente Proyecto. La librería de modelos matemáticos que va a ser utilizada para la construcción de los simuladores de las ofertas y proyectos es propiedad de CEIT. Esta librería será utilizada por CEIT para la realización de simulaciones durante las tres fases del proyecto. Una versión de la librería será licenciada por CEIT a CABB a la finalización de la FASE 4 del proyecto, para su uso interno por parte de CABB como parte interna del simulador de operación de la nueva EDAR de Muskiz.

Esta licencia será no exclusiva, no sublicenciable a terceros y solamente para su uso en la nueva EDAR de Muskiz. Se concederá previo pago de CABB a CEIT según lo estipulado en la cláusula duodécima.

SÉPTIMA. - PUBLICIDAD DE LOS RESULTADOS. Los resultados parciales o finales de la presente colaboración, podrán ser difundidos por cada parte colaboradora, mediante publicaciones y conferencias, si bien, a tenor de lo ya establecido en el punto anterior, cuando la parte interesada sea CEIT, deberá éste solicitar la previa conformidad del CABB, mediante correo electrónico dirigido al representante de esta última Entidad en la Comisión de Seguimiento del Proyecto, a la que se hace referencia en la Cláusula novena de este Acuerdo.

El CABB deberá responder en un plazo máximo de treinta días desde la recepción del referido correo, comunicando fehacientemente su autorización, sus reservas o su disconformidad sobre la información contenida en el artículo o conferencia.

Transcurrido dicho plazo sin obtener respuesta, se entenderá que el silencio es autorización tácita para su difusión.



Edozein komunikabide erabiltzen delarik ere, interesdunak berariaz aipatu beharko ditu bai lanaren egileak bai hitzarmen hau.

ZORTZIGARRENA. - KONFIDENTZIALITASUNA. CEITek egindako lanen gaineko konfidentzialtasun osoa mantentzeko konpromisoa hartzen du. Ezin izango du proiektu honekin zerikusia duen eta hitzarmen honen xede diren helburuak edo bidea kaltetu dezakeen informaziorik eman, BBUPren alde aurreko baimenik gabe.

BEDERATZIGARRENA. - JARRAIPEN BATZORDEA. Lankidetzaren honetarako Jarraipen Batzorde bat sortuko da. Batzorde hori lau ordezkari osatuko dute: BBUPko bi ordezkari eta CEIT zentroko beste bik — titularra eta ordezkaria bi kasuetan—. Sinatzaileek izendatuko dituzte ordezkariak, eta eginkizun hauek izango dituzte:

- Hitzarmen honen xede diren lanen garapena eta jarraipena kontrolatzea, bai eta hitzarmenean sinatzaileek hartutako konpromisoena ere.

- Hitzarmen honen klausulen interpretazioaren edota garapenaren ondorioz sor daitezkeen arazoak konpontzea.

- Lankidetzaren honetarako ezarri den zenbateko ekonomikoa osoa gainditu gabe lanen garapenean doikuntzak edo aldaketak egitea.

Hauek izango dira ordezkariak:

BBUPren aldetik:

- Unai Garcia (titularra)
- Fernando Ortega (ordezkaria)

CEITen aldetik:

- Eduardo Ayesa (titularra)
- Tamara Fernández (ordezkaria)

HAMARGARRENA. - LANAK EGIKARITZEA. Alderdiak, lanen garapena kontuan hartuta, euren artean adostutako maiztasunarekin biliduko dira. Jarraipen Batzordean, ezarritako lan-programaren arabera lanen garapenaren egoeraren berri emango die CEITek BBUPko arduradunei. Haia ere, prozesuaren inguruabarren arabera, maiztasun hori puntualki

En la difusión por cualesquiera medios utilizados, la parte interesada deberá expresamente mencionar a los autores del trabajo, y al presente Acuerdo.

OCTAVA. - CONFIDENCIALIDAD. CEIT se compromete a mantener una absoluta confidencialidad de los trabajos realizados, y no podrán facilitar información alguna relacionada con el proyecto que pudiese perjudicar la marcha normal y los fines perseguidos en este Acuerdo, sin contar previamente para ello con el permiso de la entidad CABB.

NOVENA. - COMISIÓN DE SEGUIMIENTO. Se constituye una Comisión de Seguimiento para la presente colaboración, que estará compuesta por cuatro representantes, dos en representación del CABB y otros dos por parte de CEIT - titular y suplente en ambos casos, que serán respectivamente designados por las partes firmantes, y cuyas funciones serán:

- Realizar un control del seguimiento y evolución de los trabajos objeto de este Acuerdo, así como de los compromisos adquiridos en el mismo por las partes firmantes.

- Resolver posibles problemas de interpretación y/o desarrollo del clausulado del presente Acuerdo.

- Introducir ajustes y/o modificaciones en el desarrollo de los trabajos que no rebasen el importe económico global fijado para esta colaboración.

Dichos representantes son los siguientes:

Por parte del CABB:

- Unai Garcia (Titular)
- Fernando Ortega (Suplente)

Por parte de CEIT:

- Eduardo Ayesa (Titular)
- Tamara Fernández (Suplente)

DÉCIMA. - EJECUCIÓN DE LOS TRABAJOS. Con la frecuencia que de común acuerdo determinen las partes a la vista de la marcha de los trabajos, CEIT reportará a los responsables del CABB en la Comisión de Seguimiento el estado del desarrollo de los mismos de acuerdo al programa de trabajos establecido, si bien, dicha frecuencia podrá verse incrementada puntualmente en función de las circunstancias de



luzatu ahal izango da, proiektuaren epe globalak ez kaltetzeko.

BBUPri bi hilean behin laburpen-txosten bat bidaltzeko konpromisoa hartuko du CEITek. Bertan, proiektuaren garapenak izan dituen aurrerapausoak jasoko dira.

HAMAIKAGARRENA. - LANEN ORDAINKETA. Hitzarmen honen xede diren lanak 1. ERANSKINEAN erantsitako txosten teknikoetan jasotako mugarriak amaitzen direnean ordainduko dira. Hona hemen mugarri bakoitzari lotutako zenbatekoa eta amaitzeko aurreikusitako egutegia:

4. fasea (2022., 2023. eta 2024. urteak)-24 hilabete	Aurreikusitako data	Zenbatekoa
F4.M2: E1 eginkizunaren aurrerapena – 2022. urtea	2022-06-30	3.600 €
F4.M2: E1 eginkizunaren amaiera	2022-12-31	3.600 €
F4.M3: E2 eginkizunaren aurrerapena – 2022. urtea	2022-12-31	5.570 €
F4.M4: E2 eginkizunaren amaiera	2023-12-31	8.950 €
F.H5: E3 eginkizunaren amaiera	2024-03-27	2.000 €
CEIT-PWM softwarearen liburutegien lizentzia	2024-03-27	4.000 €
	4. fasea, GUZTIRA:	27.720 €

Hitzarmena luzatzekotan hurrengo fasea (5) barne hartuko litzateke:

5. fasea (2024. eta 2025. urteak)	Aurreikusitako data	Zenbatekoa
F5.M1: E1 eginkizunaren-lana - 2024. urtea	2024-12-31	12.075 €
F5.M2: E1, E2, E3 eta E4 eginkizunaren amaiera	2025-06-30	16.125 €
	5. FASEA, GUZTIRA	28.200 €

Zenbateko horiek txeki, diru-sarrera edo transferentzia bidez ordainduko dira, Oihenart kaleko 7.ean dagoen Caixabanken ES98 2100 4766 11 0200076905 zenbakidun kontu korrontean, faktura formalizatu osteko hirurogei egunetan.

HAMABIGARRENA. - HITZARMENAREN IRAUNGIPENA. Alderdiren batek hitzarmen honetan ezarritako betebeharren bat betetzen ez badu eta ez-betetze

dicho proceso, con el fin de no perjudicar los plazos globales del Proyecto.

CEIT se compromete a enviar al CABB un informe-resumen, de frecuencia bimestral, que recoja los avances que han tenido lugar en el desarrollo del proyecto.

UNDÉCIMA. - ABONO DE LOS TRABAJOS. Los trabajos objeto de esta colaboración, se abonarán a la finalización de los hitos indicados en las correspondientes memorias técnicas que se adjuntan en el ANEXO 1. El importe asociado a cada hito y el calendario previsto para su finalización son:

Fase 4 (años 2022, 2023 y 2024)- 24 meses	Fecha estimada	Importe
F4.H2: Avance tarea T1 – Año 2022	30/06/2022	3.600 €
F4.H2: Finalización tarea T1	31/12/2022	3.600 €
F4.H3: Avance tarea T2 – Año 2022	31/12/2022	5.570 €
F4.H4: Finalización tareas T2	31/12/2023	8.950 €
F.H5: Finalización tareas T3	27/03/2024	2.000 €
Licencia librerías software CEIT-PWM	27/03/2024	4.000 €
	TOTAL Fase 4	27.720 €

En la eventual prórroga del Convenio se incluiría la siguiente Fase (5):

Fase 5 (Años 2024 y 2025)	Fecha Estimada	Importe
F5.H1: Trabajo tarea T1-año 2024	31/12/2024	12.075€
F5.H2: Finalización tareas T1, T2, T3 y T4	30/06/2025	16.125€
	TOTAL FASE 5	28.200 €

El abono de dichas cantidades se hará efectivo mediante cheque, ingreso o transferencia a la cuenta corriente nº ES98 2100 4766 11 0200076905 abierta en Caixabank sita en la calle Oihenart,7 (san Sebastián) en los sesenta días siguientes a la formalización de la factura.

DUODÉCIMA. - EXTINCIÓN DEL ACUERDO. Si alguna de las partes incumpliese cualquiera de las obligaciones establecidas en el presente Acuerdo, y



horrek 30 egunez jarraitzen badu beste alderdiak igorritako ez-betetzearen jakinarazpen formalajasotzen denetik aurrera zenbatzen hasita, kontratua automatikoki amaitutzat joko da.

Lankidetzaz hau bi alderdiek eten ahal izango dute ezinbestekoa denean, hau da, zerbitzua behar bezala egikaritzeaz galarazten duen alderdien borondatearen apartekoa den edozein inguruabar dela eta.

Etenaldi horrek BI (2) HILABETE baino gehiago irauten badu, alderdietako edozeinek hitzarmena amaitutzat eman ahalko du.

Kontratua lankidetzaz-hitzarmenean jasotakoa baino lehen amaitzen baldin bada, CEIT zentroak amaiera-egunera arte egindako lanen txosten bat egin beharko du lau asteko epean. BBUPk amaiera-egunera arte sortutako kostuak konpentsatu beharko dizkio CEIT zentroari.

HAMAHIRUGARRENA. - APLIKATU BEHARREKO LEGERIA ETA JURISDIKZIOA. Sinatu den egunean indarrean dagoen legeriak agintzen du hitzarmen hau. Berau interpretatu eta aplikatzeko orduan sor litezkeen gatazkak edo desadostasunak —Jarraipen Batzordeak ebatzi ezin izan dituenak— konpondu ahal izateko, alderdiak Bilboko auzitegien eta epaimahaien ebazpenaren mende jarriko dira, egokitu dakiekeen foroari uko eginez.

HAMALAU GARRENA. - AZKEN XEDAPENAK.
- **JAKINARAZPENAK.** Lankidetzaz gauzatzen den bitartean inplikaturat dauden alderdiek formalki egin behar dituzten jakinarazpenak Jarraipen Batzordeko titularrei bidaliko dizkiete, edo, beharrezkoa izanez gero, euren ordezkariari. Hori egiteko ohiko bidea posta elektronikoa izango da.

- **BESTELAKOAK.** Agintaritzaz judizialak klausularen bat baliogabetzen badu, adierazpen horrek ez die gainerako klausulei eragingo. Hortaz, gainerako klausulek indarrean jarraituko dute eta aplikagarriak izango dira. Kasu horretan, baliogabetua izan den klausula beste klausula balioudun batengatik ordeztuko

prosiguiera en el incumplimiento dentro de los 30 días siguientes a partir de la recepción de la notificación formal del incumplimiento enviada por la otra parte, el contrato se entenderá automáticamente finalizado.

La colaboración podrá ser igualmente suspendida por ambas partes en caso de fuerza mayor, entendiéndose como tal cualquier circunstancia excepcional ajena a su voluntad que impida la ejecución normal de la prestación.

Si dicha suspensión tuviese una duración superior a DOS (02) MESES, cualquiera de las partes firmantes podrá dar por finalizado dicho Acuerdo.

Cuando el contrato se rescinda antes de su finalización según la duración del Acuerdo de Colaboración, CEIT deberá presentar en un plazo de cuatro semanas un informe con el trabajo realizado hasta la fecha de terminación. El CABB estará obligado a compensar a CEIT por los costes incurridos hasta la fecha de terminación.

DECIMOTERCERA. - LEGISLACIÓN APLICABLE Y JURISDICCIÓN COMPETENTE. El presente Acuerdo se rige por la legislación vigente a la fecha de celebración del mismo. Para la solución de cuantas diferencias o conflictos que pudieran surgir en cuanto a su interpretación y/o aplicación que no pudieren ser resueltos por la Comisión de Seguimiento, las partes, con renuncia al foro que pudiera corresponderles, se someten a la resolución de los Juzgados y Tribunales de Bilbao.

DECIMOCUARTA. - CONSIDERACIONES FINALES.
- **NOTIFICACIONES.** Las notificaciones que haya que realizar formalmente durante el desarrollo de esta colaboración por cada una de las partes implicadas, serán enviadas a los titulares de la Comisión de Seguimiento o, llegado el caso, a sus suplentes, utilizándose como medio ordinario el correo electrónico.

- **VARIOS.** Si alguna de las cláusulas fuera declarada por la autoridad judicial nula, esta declaración no afectará a las restantes cláusulas que seguirán siendo vigentes y aplicables. En este caso, las partes sustituirán la cláusula nula por otra válida que



dute alderdiek, jatorrizko asmoa eta bi alderdien jarrera gordez.

- ERANSKINAK. Lankidetzeta-hitzarmen honi eranskin gisa erantsi zaizkien dokumentuak hitzarmenaren zati osagarritzat joko dira.

Eta horrela ager dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, alderdiek agiri honen bina ale sinatu dituzte, ondorio bakararekin, goian zehaztutako lekuan eta egunean.

preserve la intención original y la posición de las partes.

- ANEXOS- Los Documentos Anexos que acompañan al presente Acuerdo de Colaboración, serán considerados partes integrantes del presente mismo.

Y para que conste a los efectos oportunos, en prueba de conformidad, las partes firman el presente documento, por duplicado y a un solo efecto, en lugar y fecha arriba indicados.

CEIT Zentro Teknologikoa Elkartearen
Por la Asociación Centro Tecnológico CEIT,

Iz./Fdo.: ANTONIO GONZÁLEZ PRADA

Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoko Presidentea
El Presidente del Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia,



Iz./Fdo.: KEPA ODRIOZOLA AZULA

